

Videoteca de Baketik, el Centro por la paz de Arantzazu

Baketik ha creado una videoteca de películas y documentales cuyo contenido tiene relación con la lucha por vivir y convivir éticamente. Su objetivo es exclusivamente educativo y no comercial. Baketik presta gratuitamente estas películas a quien lo solicite: centros educativos, grupos de tiempo libre, parroquias, ONGs, asociaciones de todo tipo, familias, cuadrillas de amigos/as... Cada película va acompañada de una breve guía didáctica como ésta. Su finalidad es facilitar el análisis y la reflexión sobre su contenido. En cada una de estas guías un/a colaborador/a de Baketik que ha visto la película ha elaborado dos de sus apartados: «temática» y las «preguntas antes y después de su visionado». Es la sugerencia que nos hace esta persona para ver esta película. Si quieres tú también puedes colaborar enviándonos tus opiniones sobre películas que te hayan gustado. (Más información en www.baketik.org)

Temática

Educación, autoridad y ética

Educación. La película muestra el desafío que implica la labor educativa, una tensión constante entre límites y libertad, disciplina y confianza, y las propias aristas de la condición humana.

Autoridad. Describe la búsqueda de una autoridad que persigue ganarse el respeto y la confianza sin temor a ser cuestionada; una autoridad que no se impone.

Ética. La historia muestra el esfuerzo por tratar de hacer las cosas de otra manera, de forma más constructiva y ética. Esfuerzo lleno de incertidumbre, aciertos y también errores.

Sugerencias para ver y escuchar la película

Una película se puede ver y escuchar de muchas maneras. Ofrecemos unos puntos de referencia. Concretamente, sugerimos ver y escuchar la película...

...hacia adentro. Reflexionar sobre lo que la película nos sugiere en primera persona y sobre las preguntas que nos plantea en nuestra propia vida. No pretendemos buscar respuestas definitivas, atendemos a las resonancias que nos deja.

...hacia fuera. Promover un coloquio sobre la película en familia o en grupo. No se trata de llegar a conclusiones. Compartimos lo que hemos sentido y percibido e intentamos escuchar y entender la percepción diferente de los otros.

...no sólo con la cabeza, también con el corazón. Se trata de dejar por un momento a un lado los prejuicios ideológicos o ideas preconcebidas para que, al hilo de lo que nos cuenta la película, puedan hablar los sentimientos.

...y después de algún tiempo repensar. Estar atentos al poso que la película deja después de unos días. Ese «poso» es una impresión en la que se funden nuestra reflexión sobre lo que hemos visto y la vida propia que la historia cobra en nosotros/as.

Algunas preguntas...

...antes de la película

- Sobre la educación: ¿Qué es lo más importante a la hora de educar? ¿Qué es lo que le pedimos a la educación? ¿Qué tipo de persona debe tratar de lograr?
- Sobre la autoridad: ¿Qué supone ejercer la autoridad? ¿Qué diferencia existe entre la autoridad y el autoritarismo?
- Sobre la ética: ¿Cómo nos enfrentamos a la incertidumbre de no saber cuál es la respuesta más adecuada? ¿Cuál es la prioridad en esas situaciones? ¿Qué hacer?


...después de la película

- ¿Cómo es François como profesor? ¿Qué le caracteriza? ¿Qué persigue con sus alumnos/as? ¿Lo logra? ¿Por qué?
- ¿Por qué Souleymane se comporta así en clase? ¿Es adecuada la respuesta de François y del centro a su caso? ¿Se podrían hacer las cosas de otra manera? ¿Por qué? ¿Cómo?
- ¿Cómo es Wei (el alumno de origen chino)? ¿Por qué se preocupa su padre por él? ¿Qué le dice François? ¿Por qué?
- Visionar la escena de la reunión de profesores/as en la que hablan sobre normas y sanciones. ¿Qué es lo más adecuado? ¿Por qué?

Con la colaboración de Begoña Gómez.

zeurekin eta besteekin bizitzeko zinema

La clase



La clase

Ficha técnica

TÍTULO ORIGINAL: Entre les mur.

AÑO: 2008.

DURACIÓN: 128 min.

PAÍS: Francia.

DIRECCIÓN: Laurent Cantet.

REPARTO: François Bégaudeau, Nassim Amrabt, Laura Baquela, Cherif Bounaïdja, Rachedi, Juliette Demaille.

PRODUCCIÓN: Haut et Court.

Sinopsis

François es un joven profesor de lengua francesa en un instituto difícil, situado en un barrio conflictivo. Sus alumnos/as tienen entre 14 y 15 años. No duda en enfrentarse a Esmeralda, a Souleymane, a Khoumba y a los demás en estimulantes batallas verbales. Pero el aprendizaje de la democracia puede implicar auténticos riesgos. François y los demás profesores se preparan para enfrentarse a un nuevo curso. La tremenda franqueza de François sorprende a sus alumnos/as, pero su estricto sentido de la ética se tambalea cuando los/as jóvenes empiezan a no aceptar sus métodos.

baketik

Bake zentroa. Gatazken lantze etikia

Centro por la paz
Elaboración ética
de conflictos

baketik

Bake zentroa. Gatazken lantze etikia

Centro por la paz
Elaboración ética
de conflictos

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Eskola eta Oinako (Hezkuntza)
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Juventud y Acción
Comunitaria

943-251005

www.baketik.org

Baketik Arantzazuko Bake zentroko bideoteka

Baketik-ek geurekin eta besteekin etikoki bizitzearekin zerikusia duten filmen eta dokumentalen bideoteka bat sortu du. Helburu hezigarria dauka soilik, ez komertziala. Baketik-ek doan uzten dizkie pelikulak eskatzen dituztenei: ikastetxeak, aisialdi taldeak, parrokiak, GKEak, mota guztietako elkarteak, familiak, lagun taldeak... Pelikula bakoitzak hau bezalako gida didaktiko bat darama. Edukiari buruzko azterketa eta gogoeta erraztea du xede. Gida bakoitzean pelikula ikusi duen Baketik-eko kolaboratzaile batek bi atal egin ditu: «gaia» eta «galderak pelikula ikusi aurretik eta ondoren». Hau da pertsona honek pelikula ikusteko egiten digun iradokizuna. Nahi izanez gero, zeuk ere parte har dezakezu gustatu zaizkizun zenbait pelikulen iritziak bidalita. (Informazio gehiago www.baketik.org webgunean)

Gaiak

Hezkuntza, autoritatea eta etika

Hezkuntza. Hezkuntzako lanak dakarren erronka erakusten du filmak; mugen eta askatasunaren, diziplinaren eta konfiantzaren eta giza izaeraren berezko ertzen arteko etengabeko tentsioa.

Autoritatea. Zalantzan jarriko ez dutelako beldurrik izan gabe errespetua eta konfiantza irabaztea nahi duen autoritatearen bilaketa deskribatzen du; inposatzen ez den autoritatea.

Etika. Gauzak modu desberdinean egiteko ahalegina erakusten du istorioak, modu eraikitzaileagoan eta etikoagoan; zalantzez, ondo egindakoez eta akatsez beteriko ahalegina.

Filma ikusteko eta entzuteko iradokizunak

Pelikula bat modu askotara ikus eta entzun daiteke. Erreferentzi puntu batzuk eskaintzen ditugu. Zehazki pelikula modu honetara ikustea eta entzutea iradokitzen dizugu:

- ...barrura begira. Gutako bakoitzari esanguratsu egiten zaigun horri buruz eta gure bizitzan bertan sorrarazten dizkigun galderei buruz hausnartu. Helburua ez da betirako erantzunak aurkitzea, uzten dizkigun arrastoei erreparatzea baizik.
- ...kanpora begira. Taldean edota familian elkarriketa sustatu. Kontua ez da ondorioetara iristea. Hauteman eta sentitu duguna konpartitzea, eta besteen hautemate ezberdina entzuten eta ulertzen saiatzea da.
- ...ez bakarrik arrazoiarekin, baita bihotzarekin ere. Une batez aurreiritzi ideologikoak eta edo aurrez ditugun ideiak albo batera utzi, pelikulak kontatzen digun horren harira, sentimenduek hitz egin dezaten.
- ...eta denbora baten buruan, berriz ere pentsatu. Adi erreparatu egun batzuen ostean pelikulak utzitako arrastoari. Arrasto hori ikusi dugunari buruzko hausnarketak eta istorioak gudan hartu duen biziak sortutako inpresioa da.


Zenbait galdera...

- ...pelikula ikusi aurretik
 - Hezkuntzari buruz: Zer da garrantzitsuena hezterako garaian? Zer da hezkuntzari eskatzen dioguna? Nolako pertsona-mota lortzera bideratu behar da?
 - Autoritateari buruz: Zer dakar autoritatea erabiltzeak? Zein desberdintasun dago autoritatearen eta autoritarismoaren artean?
 - Etikari buruz: Nola egiten diogu aurre erantzun egokiena zein den ez jakiteak sorrarazten digun beldurari? Zein da lehentasuna egoera horietan? Zer egin dezakegu?
- ...pelikula ikusi ondoren
 - Nolako da François irakasle bezala? Zein da bere ezaugarri nagusia? Zer lortu nahi du bere ikasleekin? Lortzen al du? Zergatik?
 - Zergatik du Souleymanek jokabide hori gelan? Egokia al da bere kasuari François-ek eta institutuak eman dioten erantzuna? Gauzak modu desberdinean egin zitezkeen? Zergatik? Nola?
 - Nolako da Wei (txinatar jatorriko ikaslea)? Zergatik dago arduratua haren aita berarekin? Zer esaten dio François-ek? Zergatik?
 - Berriz ere ikusi irakasleek arauai eta zigorrei buruz hitz egiten duten bilera jasotzen duen eszena. Zer da egokiena? Zergatik?

Begoña Gómezen laguntzarekin.

Cine para vivir y convivir

La clase



La clase

Fitxa teknikoa

JATORRIZKO IZENBURUA: Entre les mur.

URTEA: 2008.

IRAUPENA: 128 min.

HERRIALDEA: Frantzia.

ZUZENDARIA: Laurent Cantet.

AKTORE-ZERRENDA: François Bégaudeau, Nassim Amrabet, Laura Baquela, Cherif Bounaidja Rachedi, Juliette Demaille.

EKOIZPEN-ETXEA: Haut et Court.

Sinopsia

François frantseseko irakaslea da auzo gatazkatsu bateko institutu zail batean. 14 eta 15 urte bitartekoak dira bere ikasleak. Elkarriketa sutsuak izaten ditu Esmeraldarekin, Souleymanekin, Khoumbarekin eta gainontzeko ikasleekin. Baina demokraziaren ikaskuntzak arrisku handiak dakartza. François eta institutuko beste irakasleak ikasturte berriari aurre egiteko prestatzen ari dira. François argi eta garbi mintzatzen zaie ikasleei, eta horrek harritzen ditu, baina irakaslearen zentzu etiko zorrotza kolokan jarriko da gazteak bere metodoak aintzat ez hartzen hasten direnean.

baketik

Bake zentroa. Gatazken lantze etikoa

Centro por la paz
Elaboración ética
de conflictos

943-251005

www.baketik.org

baketik

arantzazu

Bake zentroa. Gatazken lantze etikoa

Centro por la paz
Elaboración ética
de conflictos

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAIA
Eskolaren eta Olinpiar (Olimpiar) Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Juventud y Acción Comunitaria